

Arrasate, Nazioarteko Campusa

2013/09/18

Aukeratutako jakintza arloen artean, azpimarragarrienak, Informatika eta Industria Antolakuntza. Atzerriko ikasle hauen integrazioan laguntzeko, bi bide jarraituko dira: Alde batetik, kurtso bakoitzak duen dinamika jarraituz (lan taldeetan lan eginez, etab.) eta bestetik, bertako ikasleekin interakzioa erraztuz, bizitza unibertsitarioan sar daitezten. Bigarren bide hau bultzatzeko, "Buddy" izeneko programa bat sortu da, Arrasateko unibertsitate bizitza ezagutu dezaten eta bertara egokitu daitezten. Programa horretan parte hartuko duten bertako ikasleek ez dute kreditu t'erdia bakarrik irabaziko, baizik eta aurrera begira, beraien atzerriko programa batean parte hartzeko aukera ere, nolabait errazten ari dira.

Ezin aipatu gabe utzi Erasmus Mundus Lamenitec <http://lamenitec.mondragon.edu> Programaren bitartez etorri diren bekadunak. Hauetariko askok Master eta Doktoretza Programa osoak egingo dituzte, Mondragon Unibertsitateko titulu ofizial bat jasoz. Urte bat baino gehiagokoak diren egonaldi hauek, etorkizunera begira kolaborazioak sortzeko balioko duten loturak ekarriko dituzte.



Nazioarteko ikasleak